



Aretxabaletako
Udala

ARETXABALETAKO UDALAREN ETA KUKU-MIKU ELKARTEAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA

Aretxabaletan, 2015eko maiatzean

BILDUTAKOAK

BATETIK, Ana Bolinaga anderea, Aretxabaletako Udaleko Alkate-Udalburua.

BESTETIK, Kuku-Miku elkarteko lehendakari funtzioak betetzen dituen Ainara Muñoa Arando,

Egintza hau aurrera eramateko beharrezkoa den gaitasuna elkarri aitortuz, zera

ADIERAZTEN DUTE

- I. Kuku-Miku elkartea entitate pribatu eta irekia da, bertan edonork har dezake parte, ez dauka irabazi asmorik, eta Aretxabaletako herrian ekintza batzuk egin nahi ditu.
- II. Kuku-Miku elkartearen helburu nagusia da haurren hazkuntzan eragitea. Hazkuntza kontzeptuak besteak beste ondorengoak batzen ditu bere baitan: zaintza, familia, sexualitatea, haurdunaldi-erditze ondorengoa, elikadura, gurasotasuna, loa, haurren arteko harremanak, gatazken kudeaketa, jeloskortasuna, eskolatzea, herriaren antolamendu espaziala.
- III. Kuku-miku elkarteak, hazkuntza kontzeptuaren baitan biltzen diren arlo desberdinak lantzeko ekintza ugari antolatzen ditu, eta ekintza horiek finantziazten laguntzeko diru laguntza eskaera bat luzatu dio Aretxabaletako Udalari. Aretxabaletako Udalak Kuku-Mikuren lana aintzat hartzen du.

KLAUSULAK

Bat.- 2015eko udal aurrekontuetan Aretxabaletako Udalak, Kuku-Miku elkarteari 1.800 euroko diru-laguntza ematea aurreikusten da. Garrantzitsuak jotzen ditu urtean zehar gurasoei zuzenduta antolatzen dituzten ekintzak eta zentzu horretan sustatu beharrekoak.

Bi.- Kuku-Miku elkarteak burutu asmo duen plangintza aurkeztu beharko dio Udalari eta urtea amaitutakoan urteko plangintzaren memoria aurkeztu beharko dizkio Aretxabaletako Udalari.

Hiru.- Diru laguntzaren %75a, hitzarmen hau sinatu eta hamabost egunera jasoko du. Hau da, 1:350 euro, hain zuzen ere.

Lau.- Geratzen den gainontzeko %25a, urteko memoria aurkeztu ondoren ordainduko da. Horretarako memoriak ekintzen balorazioaz gain, ondoko atalak ere jaso beharko ditu.

- Txosten ekonomikoa
- Izandako diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua.
- Gastuak justifikatuko dituzten jatorrizko fakturak

Zalantzarik balego, Aretxabaletako Udalak egoki iritzitako agiri gehigarriak eskatuko dizkio Kuku-Miku elkarteari, aurkeztutakoa argitze aldera. Emandako diru-laguntza guztia zuritzen ez

bada jasotako diru-laguntza bueltatu beharko du edo jasotako diru laguntzaren azken zatia proportzionalki ordainduko da.

Bost.- Kuku-Miku elkarteak antolatzen dituen ekimenetarako iragarkietan, laguntzaile gisa, udalaren logoa edo aipamena agertu beharko da.

Sei.- Kuku-Miku elkarteak udalak euskararen erabilera sustatzeko ondoko irizpideak betetzeko konpromisoa hartzen du:

- 16 urtetik beherakoei zuzendutako ekintza guztiak (hitzaldi, idatzi etab.) euskara hutsean izango dira, eta ahalegina egingo da helduei zuzendutakoak ere hala izan daitezen.
- Ekitaldi publikoetako ahozko komunikazioak ere euskara hutsean egingo dira ahal den guztietan. Bi hizkuntza ofizialak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, lehendabizi euskarazko mezua emanez, eta gero gaztelerazkoa.
- Idatzizko mezuei (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka...) dagokienez, gutxienez elebitan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanda bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik (euskarazkoa handiago). - Edonola ere, Udal Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da argitaratu beharreko edozein testu itzuli edo zuzentzeko.

Zazpi.- Hitzarmen hau urtebetekoa izango da eta horiek iragan ondoren, bi aldeak ados badaude berriro ere sinatuko da hitzarmen berri bat.

Aurrean esandakoarekin bat datozela agertzeko, hitzarmen hau bitan sinatzen dute, helburu bakarrarekin, goian adierazitako leku eta egunean.

Ainara Muñoa Arando
Kuku-Miku elkarteko ordezkaria

